

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

1761

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 17koa, Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskadi Eraldatuz 2030 programaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen Dekretu-proiektua.

Ogasun eta Finantza Sailak Euskadi Eraldatuz 2030 programaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretu-proiektua egin du, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera izapidetu behar da.

Lege horren xedapenak betez, Ogasun eta Finantzetako sailburuak, 2026ko apirilaren 15ean, aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zuen.

Aipatutako 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak beti egin behar dira herritarren eskubide eta interes legitimoei zuzenean eragiten bazaie eta artikulua honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, Euskadi Eraldatuz 2030 programaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da, 20 egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, eta aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera ematen dion Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2026ko apirilaren 15eko Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 15.o) artikuluari dagokionez, honako hau.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadi Eraldatuz 2030 programaren esparruan euskal enpresa-sektorea eraldatzeko Indartuz finantzaketa-lerroa garatzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea, hoguei (20) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkez daitezke <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> helbidean, edo aurrez aurre, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako tokietako edozeinetan, Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendariari zuzenduta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 17a.

Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendaria,
JUAN ALBERDI ALBERDI.